

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Gobernuak Nafarroako LGTBI+ Kontseilua sortu du, talde horietako pertsonak parte hartzeko organo gisa

*Besteak beste, honako hauetako ordezkariak osatuko dute: gizarte-ehuna, LGTBI+ taldeak, gazteria, adineko pertsonak, sindikatuak eta FNMC*

Asteazkena, 2019.eko martxoak 27

Nafarroako Gobernuak gaurko bileran onartutako foru-dekretuaren bidez, Nafarroako LGTBI+ Kontseilua sortu da, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialerako ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legean ezarritakoaren arabera. Kontseilua kide anitzeko organoa izango da, aholku-emaila izaerakoa, eta LGTBI+ pertsonen eskubide eta betebeharren gainean herritarren parte-hartzea antolatuko du.

Organoaren eginkizun nagusiak hauek izango dira: LGTBI+ pertsonen berdintasunerako derrigorrezko txostenak egitea; Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuen jardueran hobetzeko proposamenak egitea; LGTBI+ pertsonen berdintasun soziala sustatzeko eta bultzatzeko neurriak proposatzea; eta sexu-orientazio, genero-adierazpen eta sexu-edo genero-identitatearen bidezko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioaren diskriminazio- edo urratze-egoerak jakinaraztea eskumeneko organoei, horien berri jakiten dutenean.

Era berean, Kontseiluak urtero jasoko du Nafarroako Gobernuak egindako txostena, eta, bertan, sexu-orientazio, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitatearen bidezko dibertsitatearen aurkako tratamenduaren testuinguruan detektatutako ekintzak jasoko dira, ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legean aurreikusitako zehapen-araubidearen arabera.

### Osaera

Kontseiluko kideak honako hauek izango dira: Nafarroako Foru Komunitateko edo erakunde autonomoetako Administrazio Departamentuetako bost ordezkari, osasunean, hezkuntzan, eskubide sozialetan, justizian, gazterian, barnean, enpleguan eta kirolean eskumena dutenetakoak; gizarte-ehuna edo Nafarroako LGTBI+ taldeak eta erakundeak ordezkatzeko dituzten zortzi pertsona; Nafarroako gazteria ordezkatzeko pertsona bat, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak proposatuta; adineko pertsonak ordezkatzeko dituen pertsona bat, Nafarroako Adineko Pertsonen Kontseiluak izendatua; LGTBI+ pertsonen eskubideen defentsan edo arretan pertsonalki edo profesionalki nabarmena den pertsona bat, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialerako eskumeneko erakundeak proposatuta; Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa ordezkatzeko duen pertsona bat, horrek proposatuta; eta

Nafarroako Foru Komunitatean ordezkariak gehien duten lau erakunde sindikal bakoitza ordezkatzeko pertsona bat.

Kontseiluaren lehendakariak izango du LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialerako politiketan eskumena duen Departamentuko titularrak; hau da, une honetan, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilaria den Ana Olló Hualdek; lehen lehendakariordea izango da LGTBI+ pertsonen berdintasun sozial arloan eskumena duen erakundeko Zuzendaritza-Kudeatzaileak arduratzen den pertsona, INAI-NABIko zuzendari kudeatzailea, Mertxe Leranoz; eta bigarren lehendakariordea Nafarroako LGTBI+ taldeak ordezkatzeko dituen pertsona, Kontseiluak berak izendatua kideen artean.

Nafarroako LGTBI+ Kontseiluaren funtzioak betetzeko, lan-batzordeak eratu ahal izango dira, duten interesa dela-eta horrela eskatzen duten gai ezberdinak aztertze aldera.